

ZURE IRUDIA

Naia Leconte, 12 urte

Angelu

Mila irudi ditut buruan
une oro;
badago bat besteen gainetik dagoena,
zurea!

Zure irudia...

Mundura iritsiko nintzela jakitean,

Zure irudia..

Bularra emaiten zenidanean,

Edo muxu bat, besarkada goxo bat.

Zure begirada goxoak

kulunkatzen ninduenean.

Milaka irudirekin jaio eta hiltzen gara,

Bakarrik jaio eta bakarrik hil.

Irudi horiek dira, une horiek,

Ahazten ez direnak,

Betirako direnak.

Momentu gazi-gezak

Zuri esker betikotz

Eramango ditudanak.

Zure irudia bezalakoa
Izan nahi dut:
Nire haurra besoetan izaitean,
Muxua edo besarkada emaitan.
Ni zugar nago eta
Zu nigan zaude.
Beti egongo zara:
Izar artean edo
Laino eta kazkabarraren pean.

Mila esker, ama,
Naizena izaten laguntzeagatik
Eta
Batez ere...
Bihotzean eramaiten
Uzteagatik...
Zure irudia!